

NAFARROAKO JARDUERA ARRISKUTSUEN KATALOGOA ONETSI ETA NAFARROAKO AUTOBABES PLANEN ERREGISTROA SORTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA. ALDEZ AURREKO KONTSULTA PROZESUAN EGINDAKO EKARPENEI BURUZKO TXOSTENA

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren urriaren 30eko 124/2014 Foru Aginduaren bidez hasi zen Nafarroako Jarduera Arriskutsuen Katalogoa onetsi eta Nafarroako Autobabes Planen Erregistroa sortzen duen foru dekretuaren proiektua prestatzeko prozedura.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatutakoarekin bat, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nagusienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Aldez aurreko kontsulta herritarren parte-hartzerako prozesu bat izan da, Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu baita 2018ko urtarrilaren 15etik otsailaren 12ra bitarte, herritarren ekarpenak, iradokizunak eta iritziak jasotzeko asmoz.

Epe hori iraganik, honako ekarpen hau jaso da:

1.- José Miguel Azconaren ekarpena

Uste du interesgarria dela prozedura argitzea (autobabes planak onestekoa) Ingurumen baimen integratuaren araubideko enpresen kasuan, non irekitzeko

baimena Ingurumeneko Departamentuari baitagokio eta ez jardueraren kokaguneari dagokion udalari. Nolanahi ere, eta autobabesari buruzko oinarrizko arauaren menpeko jarduerak arriskutsuagoak direnez eraginpean ez dauden jarduerak baino, interesgarria izan liteke udalak ere autobabes plana jasotzea, edo haren laburpena, jarduketa zehatzen bat prestatu behar balu ere.

Balorazioa: egokitzat jotzen da ekarpena, eta kontuan hartuko da foru dekretuaren proiektua idazteko.

Txosten hau Gobernu Irekiaren Atarian jarriko da jendaurrean, eta kontsulta publikoko parte-hartzaileei igorriko zaie.

BABES ZIBILERAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Isabel Anaut Peña